


Eskualdeko paisaiaren ezaugarri orokorrak


- **Klima eta Ura**

- Klima atlantikoaren eragina, prezipitazioak 1100-1800 mm artean eta batz besteko tenperatura 14°C.
- Lea ibaiaren arroak oso eraldaketa gutxi jasan ditu, ondorioz, eramaten duen uraren egoera ona da.
- Artibai ibaiaren arroak goialdean eraldaketa gutxi jasan dituen arren erdi eta behe ibilguan industria asendamentuak ugariak dira, ondorioz uraren kalitatean eragina du batez ere Markina inguruan.
- Eskualdean sistema akuifero garrantzitsua aurkitzen dira.



Eskualdeko paisaiaren ezaugarri orokorrak

- **Baserri eraikuntzen ezaugarriak:**
 - XVI. mendean: Gaur egungo baserri ereduaren sorkuntza.
 - Kareharria, harlana, haritz-zura eta teilak material nagusia.
 - Eguzkia goizean ateratzen zen aldera eraiki.
 - Bi solairu:
 - Behekoa familiarentzat eta goikoa etxabere eta uztarentzat.
 - Arkuak, bihitegi eta egurrezko tailak, familiaren baliabide ekonomikoen erakusle ziren.
 - XVIII-XIX. mendeetan:
 - Jabeek baserri zaharrak zatitan banatu.
 - Zurak protagonismoa galdu.



Eskualdeko paisaiaren ezaugarri orokorrak

– Berpizkunde garaiko baserriak:

- 4 paretak harrizkoak.
- Antzinako dorreekin nahastu izan dira.
- Ez dute ezkaratzik, ezta aterperik ere.
- Ez zuten ia leihorik.




– Zutoizko zurajea zuten baserriak:



- Fatxadaren zurajearen zutoiak agerian.
- Baserriek garaiera altuagoa har zezaketen.
- Pieza kurbaturik ez.

– Zurezko baserriak:

- Fatxada nagusiko zati bat egurrarekin itxita.
- Ezkaratza dute.
- Atzeko eta alboko paretak harlanezkoak.



Eskualdeko paisaiaren ezaugarri orokorrak

– Arkupedun ezkaratzeko baserriak:



- Nekazari dirudunak.
- Iparraldeko hargintza ofizioaren garapenarekin lotua.
- Baserriek garaiera altuagoa har zezaketen.

– Ezkaratzik gabeko baserriak:

- XIX. Mendekoak.
- Materiala kalitate txarragokoa.
- Leiho handiak.
- Tximiniako sukaldeak.

